

# **BANDOA (B19-2020)**

## **COVID-19 KORONABIRUSA. ARDURAZ JOKATU DEZAGUN**

Berako udaletik ohar hau zabaldu nahi diegu Beratarrei eta gure bailarako bizilagunei. Guztieri baina gazteei bereziki.

Kezkatuak gaude azken asteburuetan gau giroan izan diren besta eta parrandekin. Alarma egoeran gaude oraindik, osasun larrialdi batean eta ezin dugu onartu modu honetan arduragabekeriz jokatzea. Elkartzea, lagun artean egotea, eta ospatzea zilegi da noski eta onargarria, baina Beran gaueko parranda giroan bizitzen ari garen egoera salagarria da guztiz.

Nekatuak gaude denok, baina bereziki ostatu inguruetako bizilagunak, gaueko mozorkeri giroan jasan behar diren zarata, istilu, borroka eta bandalismo kasuekin. Irmoki salatzen ditugu jarrera hauek. Inoiz ez dira onargarriak, baina bizi dugun egoera honetan gutiago oraindik.

Ez dugu orokortu nahi. Badakigu jendartearen gehiengo handi baten jarrera, nahiz gazte nahiz heldu, egokia eta zuzena dela.

Udala ostatu jabeekin eta bizilagunekin solastu da, eta ados gaude egoera hau moldatzea denon esku dagoela, eta denok jarri behar dugula gure aldetik zerbait. Arduraz jokatzeko ezinbertzekoa da egoera honi buelta eman nahi badiogu.

Mezua Beratik inguruko herrietara ere zabaldu nahi dugu, badakigulako deialdiak zabaldu direla sare sozialen bidez jendea Beran elkartzeko deituz, besta egitera.

Alarma egoeran gauden oraindik, osasun larrialdian. Ostatuek ordutegi bat dute eta arau batzuk bete behar dituzte, norbanako guztiok bete behar ditugun bezala. Ez dugu zigorraren biderik hartu nahi. Elkarrizketaren bidez gauzak moldatzen saiatzen ari gara, kontu honetan inplikatuak egon daitezkeen eragile guztiekin solastuz.

Ziur gaude egoera hau zuzentzea lortuko dugula eta mezu baikor batekin bukatu nahi dugu ohar hau.

Beraz arduraz jokatu dezagun gure buruak eta bertzeenak zainduz.

Bera, 2020-06-17  
SINADURA DIGITALA.  
ALKATEA, Aitor Elexpuru Egaña